

# MATRICI KOOPERATIBAKO BALTZU ERAGILEERI EGINDAKO ESKABIDEA

## INOREN TABAKOA DALA ETA, KOKOTAGINO, TXO!

Norbera erretzailea ez bada, inoren tabakotik babesteko amaika eskabide egin dot bertan Matrici kooperatiban bearrean asi nintzane-tik, eta badira, daborduko, amabost urte, gero!

Eskabideok idatziz zein agoz egin dodaz, batzuetan apal eta erre-guka, beste batzuetan sututa eta agi-rika.

Ez dot urteotan, baina, erretzai-leetatik besterik jaso, mustur-oker-keria, orkonponkeria, gitxieritxike-ria eta bardin segiduko dodankeria-rik baino, inorenganako begirunerik eza, azken batean.

Ez dago erretzaile bat be gorabeera onetan inoren kontu artuko dauanik.

Eta esandako ori ez dot alan, merke-merke, beste bagarik esan, ez. Ori izan da, izan be, urte guztiotan beti be beti bizi izan dodan zoritxar negargarria.

Dan-danak bardin jokatu ten dabe: entzungor. Beste alde batetik, noz edo noz etxe orretako barruko erakundeakana (Kontseilu Soziala zein Kontseilu Errektorea) josten izan

dot, txitean-pitean. Erakundeok, baina, gormutu dagoz, aurki.

Amabost urte gormutu. Bada gero! Euretatik be ezelango erantzunik inoz ez dot artu. Zeresanik be ez, gure osasuna babesteko neurririk edo olakorik artuteko sasoian. Uts beti uts!

Onezkero, bada, norberaren gal-darak beteta dagozaneko, zer egin bear ete dodan neure buruari itaundu deusot makina bat bider. Baita euro-ri be itaundu. Zer egin bear dot, bada?

Ez jat, antza, beste biderik lotuten konflikto soziala sortzearena baino. Baina orragino eldu bear da gauzak konponbidean iminteko? Ezin leite-ke arazo au, beste era batera, onean konpondu? Beartuta ete nagotzue txarrean gorabeera au konpondu era-giteko? Baiezkoan nago. Borondate onik eza eta itzikeria naia besterik ikusten ez danean.

Ez dot baztertuten bada, Matrici barruan danon (nire neure) osasuna tabakoaren aaleko kaltetik babesteko neurririk ez bada artu gura, babesa Matricitik kanpoko beste foren bat

edo batzuetan topetea, legezko babe-sa bearrezkoa bada be bai. Asko da, egoera onetara eldu bear izatea!

Onegaz lotuta, bide batez, gogo-ratu eragin deutset Matriciko baltzu eragileeri 1988ko martiaren 4ko 192 Errege Dekretuak (1999ko garaga-rrilaren 23ko 1293 Errege Dekretuak osotuta) dakarrena: "Osasunbideko Lege Orokorraren 25.2 artikulua ren arabera, tabakoa pertsonen osasuna-rentzako kaltegarria dala adierazten da.

Eta konfliktorik egotekotan, erre-tzaile ez diranen osasun eskubideak leenengotasuna eukiko dau beti erre-tzaile diranen tabakoa erretoko esku-bidearen aldean, erretzaile ez diranen osasun eskubideak leenengota-suna eukiko dau beti erretzaile diranen tabakoa erretoko eskubidearen aldean, erretzaile ez diranen osasun eskubideak erasota egon leitekezan leku eta egoera guztietan".

Begirunez eta eskatutakoari oraingoan eta beingoz jaramon egin-go jakolakoan, agur beroa opetsi deutset.

**Inaki MARTIARTU**

## EUSKERAZALEAK

Euskal Astea: 2004-11-22'tik 26'ra

- 22.- ASTELENA: Bertsolaritza: Legarreta'tar Asier'ek.
- 23.- MARTITZENA: Euskalerrria Europa'n (I): Atutxa'tar Paul'ek.
- 24.- EGUASTENA: H'ari buruz dana argi ta garbi. Olazar'tar Martin'ek.
- 25.- EGUENA: (izendatzeko)
- 26.- BARIKUA: Euskalerrria Europa'n (II): Atutxa'tar Paul'ek